

Merkatuaren Segmentazioa

Gure aplikazioa merkatu oso zabal batera zuzenduta dago, arropan edo modan interesatuta dauden guztientzat (sexu eta adin guztietako pertsonentzat zuzenduta). Enpresa hau merkatu masibora bideratuta dago, gaur egun internet inoiz baino gehiago erabiltzen delako erosteko, eta ez bakarrik gazteen artean. Gure bezeroak erraztasun handiagoa bilatzen dute arropa erostearen eta bilatzearen momentuan. Horrez gain, jendez betetako dendetara sartu gabe erosteko aukera bilatzen dute, gure etxez-etxeko zerbitzua aprobetxatuz.